

Kostuen egitura

Lehenik, kostu finkoak aztertuko ditugu. Hauek hilerio edo urtero aldatzen ez diren gastuak dira. Gure kasuan, kostu finko garrantzitsuena lokalaren alokairua da. Hileko alokairua 3.500 €koa da, eta horrek urtean 42.000 €ko kostua ematen digu. Horrez gain, udal tasak eta IBla 2.000 € ingurukoak izango dira urtea n, aseguruia 800 € ingurukoa, eta mantentze eta garbiketa gastuak 3.600 € urtean. Kostu finko hauen barruan ere ura eta berogailua bezalako hornidurak sartzen dira, gutxi gorabehera 4.800 € urtean kostatzen gaituena. Guztira, kostu finkoek 53.200 € inguruko gastua sortzen dute urtean.

Kostu finkoa	Urteko kostua (eurotan)
Lokalen alokairua	42,000 euro
Udal tasak eta IBla	2.000 euro
Aseguruia	800 euro
Mantentze eta garbiketa	3.600 euro
Hornidurak (ura, argia eta beroa)	4.800 euro
Guztira	53.200 euro

Bigarrenik, kostu aldakorrak ditugu. Kostu hauek jardueraren arabera aldatzen direnak dira. Adibidez, tabernako edari eta janari hornidura, maskoten janaria, higiene materiala, garbiketa produktuak eta bezero kopuruaren arabera gastatzen diren baliabideak. Gainera, animalien osasunarekin lotutako gastuak ere aldakorrak dira, hala nola albaitariaren bisitak edo botikak. Kostu hauek ez dira beti berdinak, baina ezinbestekoak dira kalitazteko zerbitzua eskaintzeko. Guztira, gure kostu aldakorrak 30.000 € ingurukoak izango dira.

Kostu aldakorra	Hileko kostua (eurotan)	Urteko kostua (eurotan)
Edari eta janari hornidura (taberna)	1.200 euro	14.400 euro
Maskoten janaria	600 euro	7.200 euro
Higiene materiala	200 euro	2.400 euro
Garbiketa produktuak	150 euro	1.800 euro
Albaitariaren bisitak	250 euro	3.000 euro
Botikak	100 euro	1.200 euro
Guztira		30.000 euro

Hirugarrenik, kostu zuzenak aipatu behar dira. Hauek dira zuzenean gure zerbitzuarekin lotuta dauden gastuak. Adibidez, maskoten zaintza, janaria, jostailuak, oheak, txakurren guneko materiala, eta tabernako produktuak. Kostu zuzen hauek bezeroek jasotzen duten esperientzian eragin zuzena dute. Guztira, 33.600 € ko kostuak sortuko dute.

Kostu zuzena	Hileko kostua (eurotan)	Urteko kostua (eurotan)
Maskoten zaintza	900 euro	10.800 euro
Maskoten janaria	600 euro	7.200 euro
Jostailuak	200 euro	2.400 euro
Oheak eta atsedeen materiala	150 euro	1.800 euro
Txakurren guneko materiala	250 euro	3.000 euro
Tabernako produktuak	700 euro	8.400 euro
Guztira		33.600 euro

Bestalde, zeharkakoak kostuak ere baditugu. Hauek zuzenean zerbitzuari lotuta ez dauden baina beharrezkoak diren gastuak dira, hala nola administrazioa, marketina, publizitatea, sare sozialen kudeaketa eta gestoria zerbitzuak.

Kostu zeharkakoa	Hileko kostua (eurotan)	Urteko kostua (eurotan)
Administrazioa	300 euro	3.600 euro
Marketina	250 euro	3.000 euro
Publizitatea	200 euro	2.400 euro
Sare sozialen kudeaketa	150 euro	1.800 euro
Gestoria zerbitzuak	180 euro	2.160 euro
Guztira		12.960 euro

Horrez gain, gure proiektuak gizarte kostuak ere kontuan hartzen ditu. Aurretiik azaldu dugun bezala, abandonatutako maskotekin lan egiten dugu, eta horrek ardura sozial handia sortzen du. Denbora, baliabideak eta prestakuntza beharrezkoak dira animalien ongizatea bermatzeko, batez ere adineko pertsonekin lan egiten dugulako.

Azkenik, ingurumen kostuak ere kontutan hartzen ditugu. Hondakinen kudeaketa egokia, garbiketa ekologikoko produktuen erabilera eta energia kontsumoa murrizteko neurriak

hartuko ditugu. Horrek hasieran gastu txiki bat izan dezake, baina epe luzera ingurumenarekiko errespetua eta irudi positiboa ematen du.

Hasierako inbertsioaren kostuak

Lehenago aipatu dugun bezala, proiektua martxan jartzeko hasierako inbertsio bat behar da. Inbertsio hau lokala egokitzeko eta zerbitzuak eskaintzeko izango da.

Lokala egokitzeko konponketa lanek 5.000 € inguruko kostua izango dute. Altzariak erosteko (barra, mahaia, aulkiak eta biltegiarako apalak) 3.000 € beharko dira. Sukaldeko ekipamenduak, hala nola hozkailuak, kafe-makina eta bestelako tresneria, 6.000 € inguruko kostua izango du. Barra eta zerbitzu-gunerako materialak 2.000 €-tan baloratzen dira. Lizentzia eta baimen administratiboek 1.500 €ko gastua suposatuko dute, eta segurtasun ekipamenduak 800 €.

Horrez gain, txakurren gunea prestatzeko beharrezko inbertsioa 1.500 € ingurukoa izango da, aurretik azaldu dugun moduan. Guztira, hasierako inbertsioa 19.800 € ingurukoa izango da.

Laburbilduz, hasierako inbertsioa nahiko neurtua da, eta aurrez aipatutako diru-laguntza eta finantzaketa aukerekin bateragarria. Honek aukera ematen digu proiektua modu errealista eta jasangarrian martxan jartzeko.

Inbertsio mota	Zenbatekoa (eurotan)
Konponketak eta egokitzapenak	5.000 euro
Altzariak (barra, mahaia, aulkiak...)	3.000 euro
Sukaldeko tresnak	6.000 euro
Barra eta zerbitzu gunea	2.000 euro
Lizentziak eta baimenak	1.500 euro
Segurtasun ekipamendua	800 euro
Txakurren gunea prestatzea	1.500 euro
Guztira hasierako inbertsioa	19.800 euro